



Ainara Munt eta Pol-len Edicions argitaletxeak atzo jaso zuten saria Eukadiko Artxibo Historikoan, Bilbon. Argazkia: Oskar M. Bernal

# Ainara Munt, Etxepare-Laboral Kutxa Itzulpen sariaren irabazle

Joseba Sarrionandiaren 'Hilda dago poesia?' katalanera itzuli du eta Pol-len etxeak argitaratu du

A. López

**BILBO** – "Itzulpengintzari esker, kultura handiek zein txiekiek haien ondarea babestu dezakete". Hala definitu zuen Irene Larraza Etxepare Euskal Institututoko zuzendariak itzulpengintzaren garrantzia zein den. Eta ekarpen hori aitortzeko asmoz, Etxepare-Laboral Kutxa itzulpen sariaren garaile izendatu dute Ainara Munt; Joseba Sarrionandiaren *Hilda dago poesia?* liburu katalanera itzulzeagatik.

Pol-len Edicions argitaletxeak kaleratu du, *Ès morta la poesia?* izenburuarekin eta 4.000 euroko saria jasoko dute, Muntek eta argitaletxeak erdibana jaso dezaten. Horrez gain, 2.000 euro arteko laguntza jasoko dute argitalpen horren sustapenerako.

Atzo bertan Eukadiko Artxibo Historikoan, Bilbon, antolatutako ekitaldi batean jaso zuten saria; Larrazaren hitzetan, "jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura lan baten itzulpenari aitortza egitea helburu duena".

Bingen Zupiria Euskara eta Hizkuntza Politika sailburuak bere aldetik, Eusko Jaurlaritzak beste hizkuntzetara egiten diren itzulpenak aitortzen dituela adierazi zuen, izan ere euskal kultura nazioartekoratzeko lanetan ezinbestekoak dira. Era berean, Euskadi Sariak itzulpengintza lana saritzen dute, hauek baina, beste hizkuntzetako obrak

euskarara ekartzeagatik; "euskal kulturak itzulpengintza bi norabideetan" behar duela gaineratu baitzuen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak.

Hala, epaimahaiaik "itzulpen zaindua eta zehatza izatea, idazleak jatorrizko hizkuntzan bilatutako esanahia katalanez islatzeko jarritako arreta eta jatorrizkoren musikalitateari eta efektu adierazkorrari eusteko ahalegina" gailendu zuen, Inaxio Garro, Laboral Kutxako Euskarara arduradunak azaldu zuenez. Argitaletxearen lanari dagokionez, "nabarmentzekoak izan dira euskal literaturari, eta bereziki, Sarrionandiaren lana kataluniarrei helarazteko urtetan egindako ahalegina"; izan ere Pamiela eta Pol-len Edicions argitaletxeak elkarlanean itzultzen duten hirugarren liburua da hau.

Ainara Muntek eraman ditu aurrera gainera itzulpen guztiak; Etxepare-Laboral Kutxa itzulpen saria bereganatu duen *Hilda dago poesia?* liburuaz gain, *Ni en naiz hemengoa* eta *Moroak gara behelaino artean* obra ondu baititu katalanez. "2001ean abiatutako bidai honek jarraituko duela ematen du", adierazi zuen Muntek, Sarrionandiaren obrak itzultzen jarraituko duela aurreratu, "nahiz eta bere obrak itzultzea erronka handia" dela aitortu.

Gainera, Jordi Borràsek, Pol-len Edicions argitaletxeko kideak, Sarrionandiaren obrak itzultzeko tematu izana eskertu zuen, izan ere,

## DATUAK

● **4.000 euro.** Etxepare-Laboral Kutxa itzulpengintza sariaren irabazleek 4.000 euro jasoko dituzte, itzultzaileak eta argitaletxeak erdibana banatzeko. Horrez gain, 2.000 euro arteko laguntza jasoko dute argitalpenaren sustapenerako.

● **Bostgarren edizioa.** Aurtengo bostgarren edizioa izan da, eta aurrekoetan, Sarrionandia, Kirmen Uribe, Bernardo Atxaga eta Gabriel Arestioren lanen itzulpenek bereganatu dute saria.

karreraz itzultzaile den arren, "astelehenetik ostiralera" beste lan batean murgilduta dago Ainara Munt, Kataluniako itzultzaile eta interpreteen erakunde profesioleko kide dena. Azken itzulpen honekin, Etxepare-Laboral Kutxa sariaz gain, Mallorcako Cavall Verd literatura sarietan Rafael Jaume saria irabaztera eraman du ere aita katalana eta ama euskalduna dituen itzultzailea.

**ELKARTASUNA** "Itzulpena elkartasuna da. Itzultzean testua hizkuntza batetik bestera pasatzeaz gain, bi kultura harremanetan jartzen dira. Hortaz, liburua euskaratik katalanera itzultzea hori da, katalanen euskararekiko elkartasuna". Hitz horiek Pello Elzaburuk, Pamiela argitaletxeko arduradunak irakurri zituen atzoko ekitaldian; Joseba Sarrionandiak Kubatik bidalitakoak. Gainera, katalanek egun bitzitan ari diren egoeragatik bere elkartasuna bidali nahi izan zuen ere, "Espainia hizkuntzen hilibia dela" gaineratuz. Jordi Borràs bide beretik joan zen, erbestean dauden katalanak ekarri baitzituen gogora, hala nola, Ana Gabriel.

Ainara Muntek itzulpen lana eskertzeko tartea ere izan zen, Jordi Borràsek, "nahiz eta Joseba Sarrionandiaren testuak euskaraz irakurtzea gustatuko litzaziguen, katalanez egitea ederra da ere", gaineratu baitzuen. ●

**"Beste hizkuntzetara egindako itzulpenek euskal kultura nazioartekoratzeko dute"**

**BINGEN ZUPIRIA**  
Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua

**"Sarrionandiaren obrak itzultzea erronka handia da, baina egiten jarraituko dut"**

**AINARA MUNT**  
Itzultzailea